HEGO URIBEKO SARE SOZIALISTAREN OHARRA

Kirolak Eraikinean GKSk eta ITAIAk Arrigorriagako Gazte Asanbladaren partetik jasandako erasoen harira, bereziki GKSren biltegiaren aurka berriki egin dituzten pintadek suposatzen duten marra gorri zeharkatuaren aurrean, zenbait gertakariren inguruko informazioa eskaini zein Arrigorriagako "Gazte Asanbladarekiko" gure posizioa argi uzteko egindako idazkia duzue hau:

Lehendabizi, ikasturte hasieran Arrigorriagako "Gazte Asanblada"-k (AGAk) Sare Sozialistan parte hartzen duten Arrigorriagako zenbait gazteri betoa ezarri ziela salatu nahi dugu. Desadostasun politikoak direla medio, gazte asabladan pisu handia duten pertsona batzuek talde osoa posizionarazi zuten erabaki hau hartzeko. Arrazoi 'pertsonalengatik' hartu zuten erabaki hau, pertsona batzuk babestuz eta beste batzuk baztertuz eta herrian euren gaineko jazarpen psikologiko eta soziala martxan jarriz, gerora eskulade osora hedatzen saiatu direna. Erabaki horrekin batera gazte asanbladaren pribatizazioa burutu zutela argi geratzen da. Gazte asanbladako kideei formalki galdetuta, argi utzi ziguten sare sozialistan parte hartzen dugun guztiok gazte asanbladan betaturik gaudela eta ezin dugula bertan parte hartu. Hego Uribeko Sare Sozialistatik gogor salatu nahi dugu espazio irekia izan behar duen gazte asanbladaren kontzeptuaren erabilera talde sektario honen eskutik, eta pertsonen aurkako horrelako neurri baten hartzeak dakartzan ondorio larriak eta gatazka egoera. Aldi berean, gure ildo politikoan kokatzen diren Arrigorriagako gazteek euren herriko gazte asanbladan parte hartzeko eskubidea aldarrikatzen dugu, espazio zabal bat izan behar duen heinean. Arrigorriagak Gazte Asanblada ireki eta partehartzaile bat behar duela uste dugu, inolako beto ideologiko, arrazista, eta sexistarik gabekoa. Hau horrela ez den bitartean, Arrigorriagako gazte asanblada bezala sinatzen duen talde itxi horri ez diogu gazte asanblada izaerarik aitortuko, ezta kontrolpean duen espazioari gaztetxe izaera ere.

Kirolak eraikinaren inguruan sortutako gatazkari dagokionez, zenbait argipen egin nahiko genituzke. **Hasteko, argi utzi nahi dugu Kirolak eraikinaren okupazioa gure aurrekari den eskualde mailako asanblada politiko batek diseinatu, dinamizatu eta gauzatu zuela, eskualde mailako erreferentziazko eraikin politiko izateko helburuarekin, orduan 'Komunala' deitzen genion langileon egituraketa politiko eta sozialaren erreferentziapean. Arrigorriagako gazte asanbladako kideak Euskal Herrian zehar hitzaldi zein eztabaidetan gezurretan aritu direla salatu nahi dugu, eurek eraikina okupatu zutela esanez eta informazio faltsuak zabalduz, erreferentzia irabazi asmoz eraikin osoa kontrolatzeko gure aurkako ofentsiba buruan edukita**. Egia da bere egunean okupazioan parte hartzeko gonbita luzatu geniela zenbait kolektibori, tartean talde Komunala, Inizitu, Arrigorriagako Gazte Asanblada eta beste batzuk. Baina euren kabuz ezinezko izango zuten horrelako okupazio bat burutu, are gehiago: ezinezkoa zela uste zuten guk aurrera egin genuen arte.

Okupazioaren ostean eraikinaren banaketa egiteko asanblada orokor bat burutu genuen, eskualdeko Ernai ere bertara gonbidatu genuelarik. Asanblada horretan espazioaren banaketa bat adostu zen: Arrigorriagako gazte asanbladari beheko solairua egokitu zitzaion, gaztetxe modura erabil zezan: erdiko solairua, gimnasioak barne zituena, asanblada politikoari egokitu zitzaion, eta Inizituk goiko frontoian entsegu lokalak egiteko hartu zuela adostu zen. Tartean geratzen zen eraikineko espazioa, zenbait etxebizitza egiteko edo etorkizunean ildo 'komunala' elikatzeko erabiliko zela adostu genuen. Ernaik, talde komunalak eta beste zenbait eragilek ez zuten espaziorik hartu, ezta eraikinaren gainean inter- esik agertu. Hurrengo urtean zehar Inizituk ere ez zuen bere proiektua garatu, bertan behera geratu zen entsegu lokalen ideia.

Orduztik hurrengo urteetan eraikinaren errehabilitazio lanak ugariak izan dira, Euskal Herri osoko langile eta gazte mugimendutik etorritako ehunka lagunen parte hartzerik gabe ezinezko izango zena.

Orain dela hilabete batzuk, 2019ko otsailaren hasieran, AGAk Eraikineko asanblada orokor bat deitu zuen, "espazioaren erabilerarako proposamen batzuk" zituela helarazi zigutelarik. Guk ere bageneukanez goiko solairuan dagoen frontoirako proposamen bat, GKS eta Itaiako kideak gonbidatu genituen, eurentzako eskatu nahi baikenuen. Hala ere AGAko kideen atzetik ibili

behar izan ginen, asanblada noiz egingo zuten ez baitziguten argi adierazten, ezta bertan egingo zituzten proposamenak ere. Asanbladara AGAko bost kide agertu ziren, Sare Sozialistatik hamar joan ginen, eraikinean bere kaxa bizi den pertsona bat, eta guk gonbidatuta, Itaiako 2 kide, eta GKSko bat, aspalditik eraikinaren errehabilitazio lanetan pisu handia izan duen kide bat zehazki. **Hurrengo lerroetan asanblada orokor horren aktaren laburpen bat publiko egiten dugu**:

Hasteko, Arrigorriagako gazte asanbladaren proposamenek txundituta utzi gintuzten: Asanblada hasieran Sare Sozialistaren espazioa (gune sozialista) guri kendu eta Harrera elkarteari ematea proposatzen zuten (praktikan gu eraikinetik kanpo utziz), eta frontoiaren kudeaketa Arrigorriagako gazte asanbladaren esku geratzea, herri kirol talde batek erabili nahi zuela aitzaki hartuta. Gure taldeari agerturiko mespretxuarekin batera, argi utzi ziguten berriro Arrigorriagako Gazte Asanbladan betatuak geundela guztiok, guk eurei gure taldean parte hartzeko gonbitea berriro luzatzen genien bitartean.

Guk erantzun genien Arrigorriagako Gazte Asanbladak espazio nahikoa zuela beheko solairuarekin. Mespretxu bat iruditzen zitzaigula asanblada orokor bat deitzea gu eraikinetik botatzeko, guk espazio hori erabiltzen genuela eta errefuxiatuek edo Harrerak espazioa behar bazuten bi etxebizitza egokitu ahal zirela, gure espazioa baino egokiagoak izaki, zehazki bertan zeudenen etxebizitza zein honen azpian erabilerarik gabe eta egokitu gabe dagoen beste bat. Ezetz esan ziguten, Harrerak ez zuela espazio hori nahi izango, Harrerak bakarrik gure espazioa nahi izango zuela.

Bestetik, gaztetxean gaur egun dauden errefuxiatuei dagokienez, hasiera batean Kirolak eraikinean hartzeko aukera egon zenean, informazio hori ezkutatu zigutela onartu zuten, Sare Sozialista proiektutik baztertzeko etorkinak eraikinaren espaziorik desegokienean hartzeko hautua egin zutelarik: gaztetxe bezala duten beheko solairuan. Gazte Asanbladak aukera bezala ikusi zuela erreferentzia irabazteko ere aitortu ziguten. Pertsonen erabilera hori guztiz desegokia zela argitu genien, neguan sotano baten sartu zituztela gure espazioan edota etxebizitzetan hartzeko aukera izanda, gurekin adostuta. Eta harrigarria iruditzen zitzaigula gurekin kontatu ez eta orain gu eraikinetik bota eta gure espazioa behar zutela esatea. bestetik, Harrera elkartearekin zuzenean harremanetan jartzeko prestutasuna azaldu genien.

Azkenik, erabilerarik gabe zegoen frontoiko taberna Itaiari ematea proposatu genuen, eta GKSko kideak frontoi erdia biltegi bat egiteko erabiltzeko behar zutela esan zuen.

Proposamen bi hauek ondo ikusi genituen asanblada orokorrean geunden guztiok. Inork ere ez zuen ezetz esan. Zehazki, gazte asanbladako kide batek hiru aldiz esan zuen ondo ikusten zuela, proiektu guztiak bateragarriak zirela, biltegia, Itaia, edo herri kirol taldeak erabili zezan. AGAko beste kide batek orduan frontoian soberan geratuko zen espazioa gazte asanbladak kudeatzea proposatu zuen (biltegia eta Itaiaren espazioa ontzat hartuz). **Azkenean Kirolak eraikineko frontoi erdia AGA eta Sare Sozialistak elkarrekin kudeatuko zutela adostu zen aho batez, biltegia egiteko beste erdia erabiliko zelarik, eta Itaiaren espazioa ere onartuz. Eraikinaren kanpoko hormak nola margotu AGA eta Sare Sozialistaren artean erabakiko genuela ere adostu genuen**.

Asanblada osteko hurrengo astean Sare Sozialistari ezer esan gabe AGAk auzolan bat deitu zuen eta bere kabuz eraikinaren horma guztia, gure kanpoko atea barne, nahi bezala margoztu zuen, argi utziz beraiek deituriko asanblada orokorrean hartutako erabakiei zer nolako garrantzia ematen zioten. Finean, argi utziz zein den euren "errespetuzko" jarrera eraikinaren zilegizko erabiltzaile garen gainontzeko talde zein antolakundeekiko. Kontuak eskatu genizkienean arduragabeki esan ziguten 'grafiteroek' zutela horren ardura, eskua joan zitzaiela. Gero, guk gure atea berriro margoztu genuenean, herrian eraso bat bezala azaldu izan dute. Orduztik, euren jarrera bertan adostutako erabaki guztiekiko antzekoa izan da: Kirolakeko Frontoia osorik eurenganatzeko herri batzar bat deitzearekin txantajeatu gintuzten, GKS-k zein Itaiak egindako auzolanetako obrak erasotu dituzte modu ezberdinetan (zerrailak aldatu, obra apurtu, pintadak egin dizkiete…), eta jarrera oldarkorra, harrokeria itzela zein gatazkarako prestutasun etengabea agertu dute. Egoera jasangaitza

bihurtu duten arte.

Gure jarrera orain arte eraikinaren eragile guztion batasuna eta elkarlana mantentzearen aldekoa izan da, gatazka absurduak ekiditen saiatu, gure markoetan jende guztia gonbidatu, etab. Guztion energia kontsumitzen duten gatazkak absurdoak iruditzen zaizkigu. Baina eraso konstanteen aurrean elkarlanaren eta beste masaila jartzearen bide hori agortutzat ematen dugu gaurtik aurrera, ez dugu eraso, txantaia edo gezur gehiagorik onartuko erantzunik gabe.

Honengatik guztiagatik, eta materialaren lapurreta etengabeagatik, sabotaia politiko saiakerengatik, familiaraino heldu zaizkigun manipulazio eta gezurrengaitik, gure espazioaren kolonizazio etengabeagatik, eta hemen azaltzeko tarterik ez izanda ere, jaso dugun egunez eguneko erasoen zerrenda luzeagatik, hurrengoa adostu dugu:

1- Hego Uribeko Sare Sozialistak, hemendik aurrera ez dio AGA-ri gazte asanblada izaerarik aitortzen, ezta bere espazioari gaztetxe izaerarik aitortzen ere, beto ideologikoa altxatzen ez duen bitartean.

2- Hego Uribeko Sare Sozialistak AGArekin dituen akordio guztiak eta harreman guztiak hausten ditu gure kideen eta taldearen aurkako jarrera oldarkorra baztertzen ez duen bitartean, eta ez dugu onartuko gazte asanbladak bere gaztetxetik kanpo Kirolak eraikinean inolako espaziorik bereganatzea.

3- Hemendik aurrera gure kideek, Sare Sozialistak edo gure burkide diren antolakundeek jasotako edozein erasori determinazio osoz erantzungo diogu.

Hego Uribeko Sare Sozialista, 2019ko Uztailaren 15ean